Augustin Zubikarai

XIII. ipuin rallya

LH 5-6

2024-25 ikasturtea

ONDARROA

Bilduma ederra oparitu digute, bai horixe!
Sartu barrura, beldurrik gabe.
Ezetz jakin zer topako duzun!
Altxor bat aurkituko duzu orriotan,
herriko sortzaile gazteek eurek
gure esku ipini duten altxor galanta.

Aukera ederra da hau gure gazteak hobeto ezagutzeko:
abenturazaleak dira, maitasunak kezkatuta daude,
beldurrari nola aurre egin asmatu nahian ari dira,
euren burua ezagutu nahian barne borrokak
bizi dituzte eta herria maite dute.

Eskerrik asko rallyan parte hartu duzuen guztioi,
eta zorionak irabazleoi.
Jarraitu euskaraz sortzen.

URTZA ALKORTA ARRIZABALAGA
ONDARROAKO ALKATEA

IRINA ALKORTA BEDIALAUNETA
ONDARROAKO ALKATEORDEA

LH 5-6

AURKIBIDEA

4 **ANE ETA MIKELEN BIHOTZ ONA**
KARLE SOLABARRIETA BONILLA

7 **AMONA, NON ZAUDE?**
NAHIA BIKANDI OSA · AIORA ELUSTONDO BEDIALAUNETA

10 **HERRIAN GALDUTA**
EIDER BEDIALAUNETA ARANTZAMENDI

14 **ADISKIDETASUNA**
JONE URANGA ARGOITIA · LAIA MARTINEZ GARATE

16 **HERRIKO SUPERHEROIAK**
MAITANE AZPIRI TXOPERENA · NORA BILBAO AÑORGA

Augustin Zubikarai XIII. ipuin rallya

2024-2025 ikasturtea

Epaimahaikideak:
Leire Bilbao Barruetabeña
Ana Urkiza Ibaibarriaga

Antolatzailea:
ONDARROAKO UDALA

Babeslea:
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

ondarru bixi-bixi

ONDARROAKO UDAL EUSKARA BATZORDEA

Bizkaia foru aldundia

KARLE SOLABARRIETA BONILLA • Marrazkia, berarena.

Ane eta Mikelen bihotz ona

Azkenean, 16:00ak heldu ziren. Ume guztiak korrikan irten ziren haien amen bila, haien ogitartekoak hartzera. Baina ume guztiak ez gara berdinak. Bageunden bi ume desberdinak ginenak, askatasuna zen gehien maite genuena, eta hori arraroa zen gu bizi ginen urterako, XIX. menderako. Orduan Mikel eta ni hondartzara abiatu ginen.

Behin hondartzan, toailak harean jarri eta etzan egin ginen. Kalatxoriak hondartzan zeuden janari apurrak aurkitzen. Erlojuak 19:00ak jo zituen, joateko ordua zen. Zutitzen geundela, Mikelek izurde baten isatsa ikusi zuen, baina berdea zen, eskamekin. Mikelek, ezer esan gabe, oinetakoak kendu eta uretan murgildu zen. Halako batean, herri osoan entzuteko moduko sirena hotsa aditu genuen.

Baina ez zen herriko turruna, sirena baten oihua zen, zaurituta zegoen. Ezin genuen sorosleengana joan, edozer egingo zioten eta ezkutatu beharra zegoen. Pisutsua zen, tatarrez eraman genuen hondartzako haitzetako kobazulo batera. Hasieran ez zigun ezer kontatu nahi, ez zen gutaz fidatzen. Esan genion onak ginela, bakarrik la-

gundu egin nahi genion. Orduan azaltzen hasi zen, kontatu zigun arrantzale batzuk bere familia arrantzatzen saiatu zirela eta bakarrik ihes egin zuela. Pena eman zigun, baina oso berandu zen, joan egin behar genuen. Sirenari, Itxaso deitzen zena, pare bat gauza utzi genizkion salbu egoteko.

Hurrengo arratsaldean bi aldiz pentsatu aurretik,kobara joan ginen. Itxasoa oso txarto zegoen, baina materiala eraman genuen bere isatsa sendatzeko. Benda asko jarri genizkion eta hobeto sentitu zen.

Azkenean momentua heldu zen, agur esan behar izan genion eta itsasora bueltatu ginen. Oso zikin bueltatu ginen etxera, sekulako bronka jasan genuen baina merezi izan zuen.

Urte oso bat pasatu zenean hondartzara bueltatu ginen eta botila bat aurkitu genuen, barruan eskutitzbat zegoen, Itxasorena zen eta hau jartzen zuen: «Kaixo, Itxaso naiz, denbora pasatu da, baina nire bihotzaren zati handi bat hartu duzue, pertsona zoragariak zarete. Agur, Ane eta Mikel. Itxaso.» Oso ona izan zen, sekula ez dugu sekretua kontatuko.

NAHIA BIKANDI OSA • AIORA ELUSTONDO BEDIALAUNETA
Marrazkia, eurena.

Amona, non zaude?

Kaixo! ni Haizea naiz eta 11 urte ditut. Niri futbola gustatzen zait eta biki bat daukat. Berari irakurtzea gustatzen zaio; a! bera Ametz da. Mendi lasai eta baketsu batean bizi gara gure aitona-amonekin, baserri txiki batean. Amona gaixorik dago eta aitona beti amona zaintzen dago.

Bazkaldu ostean, baserrian daukagun zaldiengana joan gara. Ni eta Ametz hizketan hasi gara.

-Ametz, igoko gara zaldira?

-Ez dakit, arriskutsua ematen du-, esan zuen beldurtuta.

-Benga, Ametz, ez izan aspergarria! Ezer ez dugu egin-eta egun osoan.

-Ez, ez, ni ez noa!

-Ongi da; ni ere ez.

Ez genekien zer egin eta halako batean, herri osoan entzuteko moduko sirena hotsa aditu genuen.

-Zer gertatzen da?-, arduratu zen Ametz.

-Ez dakit! baina goazen baserrira.

Baserrira abiatu ginen korrika eta anbulantziaren eta poliziaren autoak ikusi genituen... Poliziari galdetu genion:

-Zergaitik etorri zarete?

-Hemen bizi zarete?

-Bai.

-Hemengo andre bat desagertu egin da eta bera aurkitzen gabiltza.

Biok harrituta eta oso triste geratu ginen eta aitona ikusi genuen. Ondoren berarengana hurbildu ginen eta bera negarrez zegoen. Besarkada baten ondoren, nire anaiari esan nion:

-Oraindik ez dut sinetsi ere egiten amona desagertu denik.

-Bai nik ere ez, aurkitu beharra daukagu!

-Bai, arrazoi duzu! Goazen laguntzera!

Laguntzera joan ginen, baserritik ibili ginen, zelaietatik, mendi guztia arakatu genuen, baina ez zegoen amona. Adostu genuen amonaren bila jarraitzea eta esaten dute oraindik amonaren bila gabiltzala, mendiz mendi, mundua zeharkatzen.



EIDER BEDIALAUNETA ARANTZAMENDI • Marrazkia, berarena

Herrian galduta

Bazen behin neskato bat Nerea izenekoa, Nereak ile horia zuen, eguzkiaren antzera eta oso ausarta zen.

Hiru lagun ginen Markel, Irati eta ni (Nerea).

Egun batean Ikastolako bidean, pentsatu genuen jolas bat egitea eta Iratik esan zuen:

-Eta ezkutaketan ibiltzen bagara?

-Nik ez dut nahi horretan ibili!!!–, erantzun zion Markelek Iratiri.

Halako batean, herri osoan entzuteko moduko sirena hotsa aditu genuen. Eta nik esan nuen:

-Zer izan da hori? Inoiz ez dut horrelako sirenarik entzun!!

Hirurok beldurtu egin ginen eta korrika Ikastolara abiatu ginen, Ikastolako ate aurrera iritsi ginenean konturatu ginen Ikastola itxita zegoela eta orduan aurretik entzun genuen sirena berdina, berriro entzun genuen eta orduan bai hirurok garraxika hasi ginela, eta nik esan nuen:


ITXITA

-Zer egingo dugu? Ikastola itxita, sirena arraro batek herrian jotzen, eta hemen ez dago inor, nora joango gara?

Orduan Markelek erantzun zidan:
-Lasaitu gaitezen; irtenbideren bat aurkituko dugu, seguru!

Momentu horretan bost segunduko ixilunea egon zen eta momentu desatsegin hori hausteko Iratik esan zuen:
-Ba, goazen alde zaharrera, hor jende gehiago egongo da eta beraiek seguru badakitela zergatik dagoen Ikastola itxita, eta zergatik jo duen sirena horrek!

Hirurok alde zaharrera abiatu ginen eta gizon bat ikusi genuen, eta esan genion:
-Zer izan da sirena hori, eta zergatik dago Ikastola itxita?

Eta orduan esan zigun gizonak:
-Barkatu ni ez naiz hemengoa eta oporretara etorri naiz, oraintxe kotxetik irten naiz eta sentitzen dut baina ez dakit ezer.

Momentu horretan nik esan nuen:
-Putza, orain zer egingo dugu?

Hirurok oinez jarraitu genuen eta zarata bat entzun eta zarata zegoen tokira abiatu ginen, zarata gero eta hurbilago sentitzen genuen, eta orduan berriz entzun genuen sirena hori. Orduan Irati beldurtu eta esan zuen:

-Ez! Ni ez noa toki horretara, beldurra daukat!

Eta Markelek erantzun zion:

-Lasai, ez da ezer gertatzen , goazen aurrera!

Aurrera eta aurrera herriko plazara iritsi ginen eta han ikusi genituen Ikastolako lagun guztiak eta herri osoa! Nik esan nuen harrituta:

-Zer da hau?

Bertan zeudenek esan ziguten:

-Gaur jaialdia dago! Gaur ez dago Ikastolarik, gogoratzen? Aurreko astean esan zuen irakasleak gaur ez zegoela Ikastolarik!!

-A, ba, guk ez genuen apuntatu!–, esan genuen hirurok!

Hala bazan edo ez bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila herriko jaialdian.

JONE URANGA ARGOITIA • LAIA MARTINEZ GARATE

Marrazkia, eurena.

Adiskidetasuna

Orain dela urte batzuk, Noa eta Iraia izeneko lagun oso on batzuk Miluxia izeneko herri txiki batean bizi ziren. Miluxia oso herri iluna zen eta bertako umeak sirena hotsak entzutera ohituta zeuden. 13 bat urterekin neskak banatzen hasi ziren eta Noa bere gurasoen lanagatik New Yorkera joan zen bizitzera.

Iraiak denborarekin lagun berri bat egin zuen, eta lagunarekin ateratzen zituen argazki guztiak sare sozialetara igotzen zituen. Noak hori ikusita, jeloskor jarri zen.

Uda heldu zenean Noak Miluxia herri ilunera bueltatzea erabaki zuen. Bertan bere lehengo etxera itzuli, maletak utzi eta Iraiaren bila abiatu zen; deitu eta deitu ari zen baina ez zegoen estaldurarik. Noak bat batean Iraia ikusi zuen bere lagunarekin. Iraiaren lagunari bultza egin eta berarekin hizketan hasi zen. Halako batean herri osoan entzuteko moduko sirena hotsa aditu zuten.

Euri ikaragarria zegoen, kale batzuk urez gainezka zeuden. Iraiaren lagunak hori ikusi zuenean korrika hasi zen baina Noak jakinda Iraiak ez zekiela igerian eta gertatutako guztia gertatu eta gero Iraia eskuetan hartu eta igerian hasi zen. Lehorrera heldu zirenean elkarri besarkada eman eta Iraiaren lagun faltsua nola itotzen zen ikusi zuten. Orduan Iraiak benetako lagunak nortzuk diren ikasi zuen.

ADISKIDETASUNA

MAITANE AZPIRI TXOPERENA · NORA BILBAO AÑORGA
Marrazkia, eurena.

Herriko Superheroiak

Bazen behin Andorrita izeneko herri bat, herri horrek maldizio bat zeukan. Maldizio horrek ez zuen uzten inor herritik ateratzen ezta sartzen ere, gainera zerua beti zegoen hodeiez estalita, eta gauez munstroak agertzen ziren. Herritarrak beti egoten ziren norbaitek sirena jotzeko zain, horrek esan nahi baitzuen maldizioa bukatu egingo zela.

Egun batean haur batzuk sirenari buruz hizketan zeuden.

-Ez duzue sirena jotzeko gogorik?-, esan zuen Josuk.
-Bai, baina beldurra ematen dit-, Maialenek.
-Oso ona izango zen herriko superheroiak izatea-, Mikelek.
-Gelditukо gara asteburuan saiatzeko?-, Loreak.
-Erotu egin al zara?-, Maialenek.
-Oso ideia ona da-, erantzun zion Mikelek.
-Maialen, arrazoia daukate, ezin dugu horrela jarraitu, janaria urritzen ari zaigu, alkateak esan zuen ez dugula bi urte baino gehiago iraungo -, Josuk.

-Ongi da. Ostiralera arte!-, Maialenek.

Lau lagunak ostiralean eskola ostean gelditu ziren plana osatzeko. Bi ordu egon ziren plana egiten dena bikain ateratzeko. Hauxe zen plana: gauean munstroak irtendakoan, goizean kiroldegi atzean utzitako munstro disfrazak hartu eta komun publikoetan aldatu; gero munstro artean sartu eta sirenaren dorrean sartu.



Baina gauzak ez dira beti nahi bezala irteten.

Gauean guztiek ohe barruan burkoak jarri zituzten, lotan zeudela emateko, gurasoak ez beldurtzeko. Kiroldegi atzean zeuden eta munstro batzuk ikusi zituzten baina haiek ez ziren ohartu. Korrika joan ziren komunetara eta han aldatu egin ziren.

Basoan munstro artean, halako batean Loreari oinetakoa erori zitzaion eta munstro guztiak ohartu ziren; haurrak korrika hasi ziren ihes egiteko eta txabola txiki batean izkutatu ziren. Atea ezin eutsita zeuden, gero eta munstro gehiago zetozelako. Maialenek bazekien ateak ez zuela gehiago eutsiko, beraz esan zien bere lagunei atzeko leihotik ihes egiteko, bera geroago joango zela, eta, han gelditu zen bere azken segunduak bizitzen.

Bitartean besteak korrika joan ziren sirenaren dorrera baina atea ez zen zabaltzen. Josuk sekulako ostikoa eman zion, eta atea puskatu egin zen. Denek korrika igo zituzten eskailerak eta azkenean heldu egin ziren, eta sirena jo zuten.

Halako batean, herri osoan entzuteko moduko sirena hotsa aditu zuten. Herritarrak poz-pozik jarri ziren, munstroak desagertu egin ziren, baita zeruko hodeiak ere, herri kanpoko jendea ikusten zen.

Aste betera Maialenen gorpua aurkitu zuten esku batekin eta begirik gabe. Maialeni hileta elizkizuna egin zioten eta herri erdian ehortzi zuten. Hortik aurrera denak pozik bizi izan ziren.

IRATA
@ inafatxu_.010
KOMUN PUBLIKOAK
KIROLDEGIA
BASOA
MUNSTROAK